

OIANA LERDEN..

Odio, bei naiz eta soro bat bezain premiazkoa dugu baserrian, etxetik ez urruti, anitz zugaitzez beteriko basarte edo oian bat. Zer askotarako bear dugu egurra. Piñu abarra ez da txarra, baiña gaiñetiko tantai gailliak obe dituzu bai labako sua egiteko eta bai txerri, oillo, bigantxa ta olakoentzat anabaka ta azalea prestatzeko.

Doiñu: «Urrundik ikusten

Etxetik urbil xamar maite dut basoa,
tantai ta egur txeaz beterik osoa.
Ainbeste bitxi eder dagidan Jainkoa
onetsi dezadan nik, eskerrez kolkoa.

Oi, ene baso xarmant, ene lantegial
Maizetan dut egiten igana bidia!
Mendian zut izaki eguzki gezia,
iregan duk otzana beratzen izpia.

Adar oritan guren dauzkat gaur aritzak:
urki, pago ta lizar, nolako orritzak!
Izaiak auen pare dituzu mirritzak;
zuok goraiatzeko uts dagite itzak.

Legorpea beterik adarrez metaka,
negurako dakartzit narras, kirrink oska.
Enbor jausi, enbor zut, emen ni goraka
ire itzala, adin luze, bi eskuz txaloka.

Auntzak eta beiak or dute janaria,
nekatutakoan nik abaro gorja;
oillagor ta zozotan dator eiztaria:
ire etsaia bai ziztrin, ezin siñetsia!

Guztikoak dituzu zuamu ondota:
erkin, txapar, gerri-motz, mutur-luze diran
burbuz mordoa; bosteun urteko tantaitan
ez gutxi; denak geure ditugu, egitan!

Gure asaba zarrak sartu ta landuak,
euskal enda zarraren lekuko zinduak,
ta euskaldun biotzak aise ezin aiztuak.
Aritz, pago, agiñak! , ar ene txaluak!

Eder dakionari buruz arritua,
begira naukazute oroz txoratua!
Zuetarikoren bat ikusiz txautua,
samiñez sentitzen dut biotza lertua.

I aiz, oian berdinge!, aintziña batetik
euskaldun erriaren jantzigai onenik;
ik dituk ikusiak burrukak itzalik,
ez zutenak gurean bat *ere* zentzunik.

Aspaditik dantzugu aizkora motzaren
maiz berriztatuaren durundua ozen.
Ire anaiak eurrez dituzte suntsiten,
eta piñu lerroak, ordež, zutik jartzen.

Nik geiago maite aut, oian txit maitea,
ez aut nik eratxiko, oroitzaz betea;
ire sabel-leizatik, au ezti-unea! ,
lenaren oiartzuna datorkit me-mea.

Oian lerden! , ezerik iraun zak ik beti!
Triste ta zarpilletan ez aut nai ikusi.
Bai lapar ta sasiz gaiñ, zornea dardarti,
aizeakin noizgura dantzatzuz ijuti.

Ez beitez ixil-azi txoriak kantari,
iri emanik poza ekiñaz txintari;
auzo doan erreka, goitik zillar-ari,
bemaizu ere poza barne soiñulari.

Elurrak ere ez beitzu neguz auts adarrik,
ez eta oker-azi kukutza gaiñerik;
udaberriz txoriak beukate lekurik
beuren kabi berriak jartzeko goxorik.

Baita neretzat ere, oi baso maitea!
zaike tez aldioro kabitxo asea,
poza jarioz beti, zurmur emalea,
zertu dezadan berton ene sail betea.

14 E C u A.

*Udazkena eder zaigu? Bai, ta oso alan ere, neratako. Egur-
raldi epel gozoa geienik, aize zakarrak ere noizik bein bere
agerraldia egin oi digan arren; zugaitzak ostoa laruz zarakor
dauzkagu. Soroetako uztak bilduak ditugu, baita jan-igaliak
ere. Garo ta ota ta belar, beintzat azpigarritako ainbat bur-
bada etxeratu ditugu. Udazkenak, baiña, badu bere alderdi
tristea. Zer dala-ta? Ondoren negu beltzak «eup» egiten di-
gulako, Agure zar buru-soilla dugu, soiñeko trakets ez etxe
barruraino sartu naiez ibiltzen zaiguna.*

Deárlu: Xenpelar-en «Neska gazte bati...».

Larru soillean murriztik dago
otz eta kixkur negua,
zugaitz tantaia ez dute soiñik,
guztia dager oildua,